



IPUIN LABURRAK

Bitor Garitaonandia

Iturria: *Ipuin laburrak ume txointzat*, Bitor Garitaonandia. Editorial Vasca, 1922.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GaritaonandiaIpuin.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**IPUIN LABURRAK
UME TXOINTZAT**

(Euskaltzaindiaren Idazti Batzaldirako)

Ikurritza:
«MENDU EUSKERAZ UMEAK»

1922
EDITORIAL VASCA
BILBAO



I. PERREA

Peru ta Patxi, aita-semeak, Donosti aldera zijozazen. Peruk edauzki (perra) bat ikusi zuen bidean, ta esan zion semeari:

—Patxi; artu zak edauzki ori ta gorde sakelian.

—A ze gauza! Txatar ori gordetzeagatik makurtu? Ez. —Ta jaramonik egin gabe jarraitu zion bideari Patxik.

Aitak, ezer erantzun gabe ta ixil-ixilik makurturik artu ta gorde zuen edauzkia.

Lenengo eldu ziran erriyan izan zuen edauzkia saltzeko zoria, ta eman zioten diru-ordañez, gereziak erosi zituen.

Tapa-tapa bazijoazen aurrera. Eguerdi aldia zan, ta eguzkiak gogortxo jotzen zuen.

—Ez ote degu arkituko iturritxoren bat! —esanaz, estu zijoan Patxi izerdi-tantaka, aoa legorturik.

Onelako-batean Peruri erori zitzaion sakeletik (bere naiz) geresi ale bat. Patxik artu zuen beriala, baita aora sartu ere gogoz. Geroxiago bota zuen aitak beste bat; semiak artu ta jan. Orrela, batak bota ta bestiak artu, jarraitu zioten gereziak aitu arte.

Azkenengoa jan ondoren, aitak esan zion semeari: —Bein makurtu baintzan edauzkia jasotzeko, ez ukan eun aldiz makurtu bearrik gereziak artzeko.

*Neke txikia eraman nai ez duenak
Ondoren ditu neke aundi ta lanak.*

II. ANAI ONAK

Joan ziran egun baten Tolosako txapelolara baserritar anai bi, ta galdetu zioten olajaunari:

—Jauna: ba al dezu lanik guretzat?

—Zenbat eta nolakoa dan.

—Gu gertu gaude nai dezun erataro il guzian gogor ekiteko, janaz gañera ogei ogerleko ematen badizkiguzu.

—Ogei? Ez al dek askotxo izango?

—Ez jauna. Guzia-bearrian arkitzen gera; ta zuk nai ez badezu beste bategana jo bearko degu.

—Ain bear-bearrekoak al dituzute diru oyek?

—Ara jauna. Amalau urteko anai bat degu etxean, ta nai genduke langintza bat erakustea. Aitak itz-egin zion burdigille on bati, ta gertu dago erakusteko, bañan ogei ogerleko eskatzen ditu aurrez. Ez genduan dirurik etxean, ta il ontan baserri aldean lan gutxitxoago izaten dan ezkerro, zugana jo degu dirutza ori irabasteko ustez.

—Ba, anai-maitasun egizkoa erakutsi dezutelako, izango dezute il azkenian diru ori, gogoz lan egiten badezute.

Sartu ziran bada olara, ta ekin zioten lanari; gogor ta kementsu ekin ere! Lenengoak lantegira joaten, ta azkenengoak ateratzen.

Illabete igaro ondoren olajaunak bere langelara sarraraziaz onela esan zien:

—Orra or legez ta bidez irabazi dituzuten ogei ogerlekoak. Tori beste ogei zuen zintzotasun ta anai-maitasun ordañez.

Lagundu maitasunez

Anai txikiari

Ta izango dezu Jauna

Betiko zaindari.



III. ALKARTASUN AUNDIKO AIZPAK

Sendi gabeko andere aberats batek artu zuen alabatzat umezurtz txiro bat. Sotil ta mena, alaitasu ta maitekorra, zintzotasun ta elizkoitasun aundikoa zan ume ori.

Esan zion egun baten bere andere urgazleak:

—Iziartxo: sotil ta ona zeralako soñeko berri ta apain bat izango dezu eguberietarako. Tori dirua, ta zuaz *Legezar-zeko* bitxitegira: antxen emango dizute zure gogozko oztin miesa.

Eman zion bada ogerleko pilo bat soñeko-miesa erosteko. Bañan Iziartxok, diruari begiraka egon ondoren, esan zion:

—Nere amatxo maitea: nik lendik ere baditut soñeko apain ta ederrak; nere aizpa berriz lander ta kupigarri jazten da: beraz, nik orain beste soñeko berri bat egitea izan liteke beretzat tamalgarri. Utziko dirazu bada erdiya berari ematen? Askok lagundu ziran berak ere, dakizun bezela, nere gaxo-aldian, ta beartua nago bere niganako maitasunari erantzutera.

—Nere alabatxo maltea! —erantzun zion andereak—. Datorrela onara zure aizpa. Biyok soñeko bana egitea nai det. Orrela, onginaiz ta maitasunez berdin agertzen zeraten aizpa biyok, soñekoz ere, berdin jantziak arkituko zerate.

*Elkarganako maitasunak
Zoriontzen ditu amayak.*

IV. ARTZAI ZORITSUA

Artzai-mutil gazte bat, udaberriko goiz diztikor baten, mendibizkar orlegi ta loretsuan bere arditxoak zainduaz, alaiki ta gozaro arkitzen zan. Une-oroko abesti ta soñujoteaz erakusten zuen bere barrengo atsegin ugarija.

Alakoren batean urreratu zitzayon an inguruan eizatzen zebillen laterri jauralaria, ta onginaiz onela itz-egin zion:

—Alaitasu arkitzen zaitut, gazte.

Artzaiak, nori itz-egiten zion jakin gabe, erantzun zion:

—Bai, ta nola ez? Gure jauralaria bera ere ez da ni baño aberatsagoa.

—Benetan? —zion arriturik jaurleriak—. Jakin bear det non dituzun aberaski oyek.

—Bai, bai. Ara —jarraitu zion artzaiak—; ortze urdin ortan agertzen zaigun eguzki diztikorrak jaurleri jaunarentzat bezin argi bialtzen du neretzat ere. Mendi ta zelai, ibar ta soroak, bakoitzasun gabe ematen dizkigute urrin ta usai goxozko ostail ta loreak. Nere esku ta besoak ez nituzke emango berreun milla laurlekogatik, ta nere begiak erosteko ez dira aski jaurleriaren aberaski guziak. Nai detan aña jaten det, edan ere bai; zer jantzi badet, eta urtero lansaritzat ematen didate bear detan aña diru. Gañera, Jaungoikoaren adizkide naiz. Ez al-naiz bada jauralaria bezin aberatsa?

Jaurleriak, irri-parrez artzaiari begiratuaz, ta nor zan jakin-arazi ondoren, onela erantzun zion:

—Bai, artzai zoritsu: izpidean ago. Ire jaurleriak ere orrela uste dik. Iraun dezaikela urte askotan zorionezko alaitasun orrek.

*Barrengo alaitasunez
Bizi dan otseña
Jaurleri jauna baño
Aberatsago da.*



V. SEME ONA

Salerostetxe aundi bateko sarigarri arkitzen zan Andoni. Bere aitak ere etxe artatik ateratzen zuen bizibidea, aurkezle bidaztuaz.

Alako egunean aitak nagusiaren aginduz itxasostera joan bearra izan zuen. Itxasontziratu ta laister jakin zan ontzi aura itxaslapur batzuek arrapatu zutela; ta inguru guzietan galdekuntzak egin arren, etzetorren inondik ere Andoniren aitatzazko izparrik.

Andonik bete zuen beriala sarigarritza, ta nagusiak, bere zintzotasuna ikusiaz, eman zion bere aitak zuen irabazpidea. Arteziz ta zindoro jarraituaz laister aurreztu zuen diru puska bat.

Alakoren batean, jakin zuen Turkian arkitzen zala bere aita moamar baten jopu-morro, ta erabaki zuen nolabait joputasun artatik azkatutzea. Orretarako diru askotxo bear zuen, ta lendik aurreztutakoak geitutzeko zaldu zituen janzki ta beste domudun gauzaki guziak bear-bearrekoak ez baizik. Bidaldisaria ere aurreztutzearen sartu zan otseintzat eguterantz zijoan itsasontzi baten; ta eldu zan Turkira.

Aitaren berri jakin ondoren joan zan menpeko zeukan maomar abe-ratsagana, ta eskatu zion gogoz ta biotzez bere aitaren azkatasuna diru-ordañez.

Bañan maomarrak Andonik zeukan baño askozaz diru geyago eskatu zuen.

Andoni biozkatu zan; ta aitaren azkatasuna diruz erosi ezin zuen ezkeroz esan zion maomarrari:

—Jauna: Azkatu zazu arren, nere aita, ta bere ordez ni geldituko naiz zure jopu. Berak bezin ondo gomenduko zaitut.

Maomarrak agindu zuen deitzeko beriala arrotz jopuari. Alkar ikustez batean besarkatu ziran aita-semeak, eta tankera ortan, begiak malkoz beterik, itz-egiteko adorerik gabe, arkitzen ziran biyak.

Jakin zuenian aitak Andoni eskeindu zala bere ordez gelditzeko, biotz-ikaraz ta saminki malkoak ixuriaz onela zion:

—Ez seme, ez! Geyegi dek ori: Nere bizitza laburra izango dek!

—O nere atatxo maitea! —erantzun zion Andonik—. Ez dakigu zeñen bizitza izango dan laburragoa; ta gertu nago, ez bakarrik zure joputasuna nere gain eroateko, baita nere bizia emateko ere. Tori zu erosteko ustez ekarri ditudan diruak. Oyekin ordaindu dezakezu arantzko bidaldia, ta... Jaungoikuak onetsi zaitzala. Ni emen geldituko naiz.

Itz auek entzuteaz biotz-ukitu zan maomarra, ta esan zion Andoniri:

—Gazte: Seme bikain ta zintzoa aiz. Beraz, ordainketa gabe azkatu-rik gelditzen dek ire aita. Gañera, nik ematen diat salerostetxe bat jartze-ko bear dekan aiña diru. Jaungoikoaren aginduari jarraituaz aitagana-ko maitasun osoa agertu dekalako.

*Azten badituk seme-alabak gizapidez
Igaroko dek zartzaroa atsegñez.*



VI. MALTZURRA

Pello zeritzaion mutil gazte itsu bat uriko Eleizan mesa entzun ondoren bazijoan bere auzoaldera makilla bat lagun zuela. Bidean Praixkukin bat-egin zuen, ta, beti bezela, tenk-egin zuten. Praixku guztiz-ko maltzurra zan, ta irri ta parre egin naian esan zion itsuari:

—Pello: lasterketa bat egin bear diagu. Nai dekan beste jokatuko diat zeñek bizkorrago egin.

—Non ta noiz dan —erantzun zion itxuak.

—Ona emen amaseiko bat non-nai ta noiz nai jokatzeke.

—Badijoa. Ona emen neria ere —erantzun zion itxuak: Ta inguruan zeuden iru gizon ziñaldari jarri ondoren jarraitu zuen esanaz: —Jaunak: leku ontatatik uriko eleiz-atariraño izango da lasterketa; ta abiatuko gera gaur gabeko amabi-amabitan. Beraz, eleiz-atarira lenengo irixten danak jasoko ditu amaseiko biyak.

Eldu ziran gauerdiko amabiak, eta, tema-arauz, abiatu ziran biyak batean.

Etzan agiri illargirik ta gau illun-illuna gertatu zan. Itsuari argi nai illun berdin zitzaion, ta oitutako bideari tapa-tapa jarraituaz iritxi zan eleiz-atarira eguna zabaldu baño len. Praixku berriz abiatu ta berealaxe bidez galdurik, jo orrera ta onera, bai larrapastaka ta bai zilipurdika, batean zugatz-enborra jo, bestean arantz artera sartu, non arkitzen zan ere etzekiala zabaldu zitzaion eguna: ta, jakiaña, itxua baño askozaz geruago iritxi zan eleiz-atarira.

Jaso zituan bada itsuak legez ta bidez irabazitako amaseiko biyak: ta Praixku, sakela murrsturik, auzokide guziak irri ta parrez atzetik zituala, apal-apal ta ixil-ixilik etxeratu zan.

Orra or bere maltzurkeriak eman zion sariya.

Landerteri ta ermainduntzaz

Ez iñoiz isekatu

Goiko-Iaunaren zigorra

Artu nai ez badezu.

VII. INTXAURRA

Intxaurdi eder bateko itzalian jolastutzen ari ziran mutil-koxkor bik arkitu zuten intxaur bat.

—Nerea dek —zion Iñakik—. Nik ikusi diat lenbiki.

—Ez, —erantzun zion Txomiñek— neretzat izango dek neronek arrapatu detalako.

Beriala sortu zan biyen artean inkimako izugarri bat. Lenbizi itzgoraz, gero aserrez ta azkenez burruka.

Onetan ari zirala eldu zan beste mutil indartsuago bat, ta burrukari biyen artean onela itz egin zuen.

—Tira adizkideak, geldi! Nik erabakiko dizutet auzi ori —eta intxaurre erdibituaz jarraitu zuen—: Oskol-erdi au lenbizi intxaurre ikusi duentzat; eta beste erdia lenbizi arrapatu duentzat. Mamia neri egikiten zait epai-saritzat.

Au izaten da auzi guzien amaya:

Malmuzkeri asko ta onura gutxi.



VIII. ARROSAK

Basetxean bizi zan lugin etxagun batek, landatu zuen bere baratzako lilitagian arrosa-ondoizko bat.

Ikusi zuen urrengo egunean bere alaba Margarik eta esan zion aitari:

—Zer jarri dezu or? Ain lilitegi polit eta ederrian sartu abetxo zakar ori! Oso gaizki ematen du arantz orrek lorontzi egoki ortan.

—Itxoin, ume, itxoin —erantzun aitak—. Arantz legorra iruditzen zaitzun landara orrek emango ditu garaiz baratz guzia bitxituko duten lore lirain ta guri-guriak.

Margarik burua igituaz erakusten zuen bere ziñeskaiztasuna.

Bañan etzuan izan luzaro itxoin bearrik ziñestutzeko. Laister agertu zizkaion abetxo arantzadunari motetxoak, ta poliki-poliki ostatuaz jantzi zan margo ori-uridin ederrez. Ondoren, sortu zizkaion pinpirin txiki ta politak, ta lilipa, akara ta beste lore-belarren ostoak zimeldu ta legortzen ai ziranean zabaldu ziran arrosa-pinpirinak eta arantza baño besterik etzeukan landaratxo aura bete zan lore lirain ta ederrez, baratz guzia apaindu ta bitxituaz.

Margari arriturik arkitzen zan arrosaren zuri-gorritzko margo diztikorra ikusiaz ta bere usai goxoa sumatuaz. Uneoro joaten zan lore berriaren uriña gozartzera, ta onela zion:

—Au bai dala lore polita! Ez det iñoiz ikusi politagorik, ezta baratz-apaingai ederragorik ere. Nork esango zuen!

—Sinisten dezu orain? —erantzun zion aitak—. Ikusi dezu nola arantzatik etorri liteken arrosa ederra. Bere epea igaro arte itxoin bearra izan dezu, bañan orain pozik arkitzen zera.

Orrela dira Jaungoikuak bere maitasunez bialtzen dizkigun nekeak ere. Abetxo arantzadunak udaberri ondoren arrosa ederrak ematen dizkigun bezela, neke ta naigabeak ere, eroapenez artu ezkerok, ekarriko dizkigute atsegin ta zorion ugariak.

IX. AZABURUA

Bittor ta Patxi langilleak baratza eder baten aurretik zijoazela gelditu ziran azaburu ikaragarri batzuek ikusiaz. Bittor zinezkoa zan, Patxi berriz guztizko arroputza.

—Izugariak ditut —zion Bittorrek— ez diat iñoiz ikusi andiyagorik.

—Bai zera! Ori ez dek ezer —erantzun zion Patxi— Amerika aldean badituk askozaz andiyagoak ere. Nik bein ikusi diat aurreko bere-ter-etxe ori baña azaburu aundiago.

Bittorrek, perzkillea zanez, esan zion beriala:

—Gogortxua dek ori! Bañan nik ere esan bear diat entzuteko bat.

Orain amar urte inguru lagundu niokan nere nagusiar bereter-etxe ondoan arkitzen dan eleiza baña pertz aundiyago bat egiten.

—Bañan gizona —jardetsi zion Patxi—, zertarako ukan pertz izugarri ori?

—Ba, ire azaburua egosteko.

Bittorren erantzuera egokiak naskatu zuen Patxi, ta apal-apalki bere ekandu gaizkorra ezagutuaz, onela zion Bittorri:

—Ulertzen diat ire gogokizuna. Bazekiat ondo igandik urruti ibiltzen dala gezurra, ta gaur egibidez itz-egin ez badek, nere irigarriz izan dek. Ongi egin dek. Etzaitak aztuko nere zentzapidez gaur erakutsi didakan esakun au:

Gezurtiari gezur t'ardi.



X. ARBIA

Nekazari apal batek atera zuen bere baratzatik arbi ikaragarri bat. Erri artan etzan iñoiz ikusi aundiyagorik.

—Endore alkate jaunari eskeiñiko diot —esan zuen nekazariak—. Lugintzalea da ta atsegiñez artuko du.

Eraman zion bada; ta endoreak guztizko abegi ona egin zion, bere atsegiña erakutziaz; ta nekazariaren lugintzaldezko arreta goraldtu ondoren eman zion amaseiko bat.

Nakazariaren auzoan lugin aberats eta zeken bat bizi zan. Jakin zuen onek nekazariari endoreak nola saritu zion arbi eskeintza, ta bekaitzez beterik onela zion bere artean:

—Badet nik ere txal gazte eder bat. Endore jaunari eramango diot eskeintzat, eta arbi zakar bategatik amaseiko bat eman badu zenbat emango ote dizka neri txal bat eskeiñi ezkerok?

Jetxi zan bada abeltegira; eldu zion txalari, ta eramán zion endoreari. Bañan endoreak zakenaren asmoak ulertuaz uko-egin zion.

Etzan orregatik aberats-zekena atzeratu, ta ari t'ari jarraitu zuen bere opariya eskeintzen.

Gogaitu zan endore jauna zekenaren jarduketaz, eta esan zion:

—Tira ba: ainbeste alegintzen zeran ezkerok, utzi zazu txal ori. Eskartzen zaitut, eta ain oparotsu nerekin agertu zeralako, ni ere ez naiz zurekin gutxiago izango. Orrela bada, zure txal-saneurriya bañon askozaz geyago ordaindutako opariya eman bear dizut.

Eta beriala eskeiñi zion nekazariaren arbi aundiya, lotsariz ta laborriz aberats-zekena utzirik.

*Urkoari bekaitzez begiratzen dionak
Izango ditu beregain neke ta miñak.*

XI. PAGO ZABALA

Erramun ta Martin aurkeztu ziran egun baten auzitegian.

Erramunek esan zion epailleari:

—Iru urte dira bidaldi bat egin bearrian arkitu nintzala. Bidean jarri baño len eman nion Martini, adizkide zintzoa zalako ustez, urre ta diztarritzko eraztun domutsu bat, nere bidaldi bitartean gorde zezan. Ta orain, ziñez biurtu bearrian, ukatu egiten dit.

Martinek, bere eskua biotz gain jarriaz, erantzun zuen:

—Zin-ziñez dizutet nik ez detala ikusi ere eraztun ori. Erramuni burutik egin zayo noski.

—Eramun —galdetu zion epailleak—: bai al dezu ziñespidetik eraztuna Martini eman ziniola bayeztutzeko?

—Zorigaitzez —erantzun zion Erramunek— eraztun ori Martini eskuratu nionian etzan arkitzen inguru artan beste ikuslerik ibai-ondoko pago zabala baizik. Bere itzalpean agurtu giñan.

—Erramunek dion zugaitzaz ere eraztuntzaz bezela arkitzen naiz —jardetsi zion Martinek—. Ez dakit non dagon ere.

—Erramun —jarraitu zuen epailleak—; zoaz beriala, ta ekarri zazu zugaitz orren adar bat. Eta zu, Martin, geldi emen Erramun biurtu arte.

Joan zan Erramun, ta geroxiago esan zuen epailleak:

—Noraño joan ote da ori? Etorri bear zuen oraingo nonbaiten gelditu ezik. Iriki zazu leyo ori, Martin, ia datorren.

—Bañan epaille jauna —erantzun zion Martinek— nola nai dezu ain laster etortzea, zugaitz ori urruti arkitzen baita?

Jeiki zan bat-batean epaillea, ta kementsu onela itz egin zion Martini:

—O! gizon gaizto ta maltzurra. Gizaki guzien biotz-barrenak eza gutzen dituan Jaunaren aurrean gezurrez zin-egin! Zugaitza non dagon dakienak izango du eraztunaren berri.

Martin, ikaraka ta larriturik, itz-egiteko ere etzala gelditu zan. Beraz, eraztuna nork zuen jakiteko etzan beste agerbide bearrik izan; eta epailleak gaitzetsi zuen eraztuna itzuli ta urtebete espetxean igarotzera.

*Naiz lurpean naiz itxas-ondoan
Zure ogena estali,
Agertuko da egunen baten
Zure gaizkin-salatari.*



XII. LEOIA TA SAGUA

Sagu txiki batek igo zuen lotan zegon leoiaren bizkar gañera. Esnatu zan leoia, ta arrapatu zuen sagutxoa atzapar artean. Sagu gaxuak garraizika onela otoitzen zion leoiari:

—Azketsi jauna! Utzi bizirik, arren, ordainduko dizut-eta!

—Ze ordain eman lezake sagu gaxu onek? —zion leoiak bere artean, ezetsirik saguaren laguntza. Bañan, errukitu zan, ta utzi zion pakean.

Geroago, eizari batek arrapatu zuen leoi ori zarezaz, ta indartsua izan arren gelditu sare-artean buru ta anakak loturik, zirkinik ere egiteko etzala.

Ikaragarritzko sumintasunez asi zan orroaka. Sagu txikia, orroia entzun ta beriala, atera zan zulotik eta joan zan leoigana.

—Zer dezu leoi jauna? —galdetu zion saguak.

—Zer detan? Arrayo-pola! Arrapatzen badiat anka-biko ori! —erantzun zion orroi aundi bat egiñaz.

—Ez estutu, nik azkatuko zaitut-eta.

—Bai, zera egingo dek!

—Egon geldi —esan, da eldu zion sagutxoak bere ortz zorrotzakin sareari, ta lokarriak ebakiaz azkatu zuen leoia.

Orrela erakutsi zion saguak leoiari, aundi ta indartsua izan arren ez dala ezetsi bear txiki ta argalak baitu lezaken laguntza.

XIII. BASERRITARRA TA DEABRUA

Zegama aldeko basetxe baten bizi zan gizon aipatu bat. Baseritarerne ta azkarra benetan! Asko dira bere egitsariak. Ona emen bat.

Lugintzan arratsalde bateko zeregiñak bete ondoren abiatu zan etxerantz: bañan, bat-batean agertu zitzaion soro-erdian ikatz-bizizko metatxo bat, eta metatxoaren gañean, patxadan eserita, txerren txiki ta beltz bat. Arritu zan zegamatarra.

—Zer dek ori! Txerrena txingar gañean! Ikusi bear degu ba, zer dion.

Ta bildur gabe urrerraturik, onela dio:

—Eup! Bagaude?

—Bai, ta ederki egon ere ogasun-gañean eserita —erantzuten dio txerrenak.

—Altxor domutsuren bat izango dek xingar-metaixo ori, noski?

—Domutsua! Baita benetan. Ik iñoiz ikusi ditukan urre ta zillar guziak bañon ogasun geiago dik txingar-meta onek.

—Balitekek!... Ba, altxor ori nerea dek, nere soroan arkitzen dalako.

—Irea izango dek soro ontako lurraren bi urteko etekin erdija ematen badirak.

—Ogasun bearrian arkintzen al aiz beraz?

—Ez: bazeukat dirua ugari, bañan lur-emaizta atsegin zaidak.

Ixil-alditxo bat izan zuen baserritarrak: eta buruan atz egin ondoren onela erantzun zion txerrenari:

—Ondo zio: bañan, lur-etekiña banatu bear degunian asarrerik izan ez dezagun, orantxe bertan egingo diagu banaketa: Iretzat lur gañean arkitzen dana, ta neretzat lurpekoa.

Ontzat artu zuen txerrenak baserritarraren erabakia, ta joan zan etekin garai arte agurtuaz.

Baserritarrak, poliki oldoztu ondoren, erein zituan zainorriyak.

Eldu zan izendatutako garaia, ta agertu zitzaion baserritarrar txerren beltza, ta esan zion:

—Tira, non dira nere urte ontako etekiñak?

—Orra or, soro guzia bet-betia —erantzun zion baserritarrak besoak zabalduaz.



Bañon txerrenak etzuen arkitu lur-gañean orri orizka ta simelak bai-
zik: ta baserritarrak poz t'atseginez atera zituan lurpetik zainori guri-
guriak.

—Zori ona izan det aurten —esan zion txerrenak— baña ez det
izango berriz. Datorren urtean lur-gañekoak izango dituk iretzat, eta lur-
pekoak neretzat.

—Ondo zio! —erantzun zion baserritarrak.

—Bañan, txerrena joan zanian, zainori orde z gariya erein zuen. Eta
biltzeko garaya eldu zanian ebaki ondo-ondotik eta eraman zituan etxera
galburu ta lasto guziak.

Agertu zan txerrena, bere lur-etekiña eramateko ustez, bañan etzuen
arkitu zoroan ezertxo ere sustraiak baizik, eta asarretu ta minindurik bota
zuen bere burua aitz-tontor batetik bera.

Baserritarrak parre-egiñaz onela zion:

—A ze iruzurra eraman duen! Ori egin bear zaie azeri maltzur oiei.
Ze lasai ta zoritsu beragandu zuen txerrenak utzitako altxorra.

XIV. TXORIAK TXAPELPEAN

Mikel basetxe eder bateko seme-nagusia zan: lelotxua bera. Egun
baten, kabi bateko txori gaztetxoak arrapatu zituen. Non eraman etze-
kieia, txapelean sartu zituan, ta txapela txori ta guzti, buruan. Izango zuen
gili-gilia buru aldian!

Etixerontz zijoala ezezagun batek, gurka bat egiñaz, esan zion:

—Adi zazu adizkide: norakoa da bide au?

Bañan Mikelek txoriak zeuzkan ginbelian ta agurrari erantzuteko
ginbela kendu bear, ta... txoriak iges-egiteko bidean jarri baño len, oldoz-
tu zuen bere artean: —Nik zer zeukat ze-ikusi ezezagun onetzaz?— ta
jaramonik egin gabe jarraitu zion bideari.

Ezezagunak arriturik, onela zion: —Au zakarrkeria! begiratu ere ez!
Basatiak ote dira emengo giza-semeak?— eta geyago gabe utsi zion
Mikeli.

Geroxiago, endore jaunaren ondotik igaro zan Mikel. Erritar guziak
zuten endore jauna agurtu bearra: bañan Mikelek, ginbelian txoriak zitua-
lako edo zakarra zalako, etzion agurrik egin. Endore jaunak esan zion
bere ondoren zetorren otseiñari:

—Mutil orrek ginbela buruari iraatzita al zeukak?

Joan zan otseiña beriala Mikelgana, ta esan zion:

—Aizak Mikel: Endore jaunak ginbelpian zer daukan jakitea nai dik,
eta kendu zak beriala.

—Etzeukat ezer, mutil... illeak bakarrik —zion Mikelek; eta etzuen
ginbela erantzi nai.

Bañan otseiñak etzeukan berriketako gogorik; eta, zapla! jo ta bota
zion lurrera ginbeloi. Aura zan ikustekoa! Txoriak, parra-parra, pozkidaz
egazka!; Mikel asarre ta purrustaka: Endore, otsein ta inguruko guziak
irriz ta parrezka!

Andik aurrera «Mikel txori» deitzen zioten Mikel: ta agur egiten etzu-
tenentzat esakun sortu zan:

«Orrek Txoriak ditu ginbelpian noski».



XV. SAGU ERNEAK

Sagu gaxoentzat katua izan da beti etsairik gaiztoena. Gogaitu ziran katua-
ren eguneroko jarraiketa ikusiaz, eta bildu ziran guziak beti itxia
arkitzen zan gela baten batzar bat egiteko. Berrogei ta zortzi aldiz katua-
ren atzapar artetik igez egindako sagu maltzur bat autetsi zuten batzarbu-
ru: «Gaztaki» zan bere izena. Nai zuten guziak txandaka itz-egin ondoren,
jeiki zan Gaztaki, ta onela itz egin zuen:

—Nere anai ta lagunak: Itz geyegi egiten dezute. Guri dagokiguna
da alperrikako berriketari utzi ta erabaki zuzenak artu.

—Ori dek, Gaztaki! —zioten guziak.

—Bai: zuek bañon obetoago ezagutzen dizkiat katua-
ren gogokizun gaiztoak. Gaur goizean berrogei ta zortzigarren aldiz arkitu nauk gure
etsaiaren atzapar artean; ta ez nukek nai berriz arrizko ortan nere burua
ikusterik. Orretarako, astiro oldoztu ondoren, asmatu diat bide zuzen ta
egoki-egoki bat. (Guziak txaloka: —Gora Gaztaki!). Bide egoki ori dek,
katuari lepotik zintzillika txillin bat jartzea. Orrela somatuko diagu urre-
ratu baño len, eta izango diagu zuloan garaiz sartzeko astiya.

—Ori, ori! Bejon deikela! —zioten guziek.

Ekarri zituzten txillin zoli bat eta lokarri polit bat. Guziak agertzen
zuten beren alaitasun ta pozkida. Bat bakarrik, zartxo bera, arkitzen zan
oldozkor. Jeiki zan oldozketa ondoren, eta galdetu zuen benaz:

—Nor izango da katuari txillina jarriko diona?

Guziak ixildu ziran bat-batian.

Gaztaki batzarburuak ere galdetu zuen:

—Ez al du iñork azarkuntzarik?

Etzuen iñork erantzuten.

—Katua lo arkitzen dan bitartean ere ez? —galdetu zuen berriz.

Bañan berdin; guziak, zar ta gazteak, ixil-ixilik arkitzen ziran.

Asarretu zan Gaztaki, ta jarraitu zuen esanaz:

—Ba, alperrik bildu gera. Zoazte emendik, katua-
ren erpekada goxuak ezagutzera.

Ta banaka-banaka, apal-apal ta atsekabez, joan ziran sagu gaxoak
bakoitza bere zulora; eta or dabilta bazterrik-bazter ankajokuka, katua-
ren ingurutik itzurka.

XVI. TXOMIN GEZURTI

Igande arratzalde batean atera zan Txomin bere aitakin ibilketatxo
bat egitera. Guztizko gezurtia zan Txomin ori. Bidean zijoazela, esan zion
aitari:

—Aita: Legezar-zeyan ikusi nuen atzo izugarrizko txakur bat: bazan
gutxienez gure zaldi zuria bezin aundiya.

—Ago ixilik —erantzun zion aita—, orrela gezurrik esan gabe.

—Baietz: zuk ez dezu siniztuko, bañan egi-egiya da: ondo begiratu
nion.

—Arritzekua dek.

—Idi batek bañan indar geiago omen du.

—Kaiberriko zubia igarotzen degunean jakingo diat egia dan edo ez.

—Zer ba?

—Ara: Gezur aunditxo esaten dutenak zubi ori igarotzean arri bat
jo ta eroriaz edo besoa edo iztarra autsita gelditzen ditut.

—Benetan? Ene!

Ikaratu zan Txomin, ta onela zion aitari:

—Itxoin puxka bat, aita. Nola esan dizut len? Orain gogoratzen naiz
ondo. Etzan izango gure zaldia bezin aundia: bañan, bai astoa bañan zer-
bait aunditxoagoa.

—Baliteket. Laister gaituk zubian —erantzun zion aita.

Txomin, zubiari begiratuaz, geroago ta geyago estutzen zan; ta esan
zion aitari:

—Aita: atzo ikusi nuen txakur ori izango zan ba txal txiki baten
esterikoa.

—Bai: gutxienez. Emen dek zubia: gaizki bear dek oraintxen,
Txomin —esanda bazijoan aita aurrera.

Bañan, Txominek, estutasun larriak arturik, eldu zion jaketik, esanaz:

—Aita, aita, gelditu arren! Geiegizka esan det. Atzoko txakur ori,
beste txakur batzuek bezelakua zan.



XVII. BASERRITARRA TA TXIMINOAK

Joan zan egun baten baserritar bat aberats baten jauregira, otarra bat bete madari eramatera.

Jauregi atarian arkitzen ziran tximino bi, apain ta poliki jantziak, beren ginbel ta guzti: neska-mutiltxo bi ziruditen. Somatu zuten beriala madari-urrin goxo-goxua, ta eldu zioten alde bitatik otarrari *sakela* mada-
riz betetzeko pozez. Baserritarra txapela itzalez kenduta egon zan tximino-
ak madariz asebate egin arte. Ondoren, eraman zion otarra nagusi jaunari.

Onek, otarra erdi-utzik ikusirik, galdetu zion baserritarrari:

—Zergatik ez dezu ekarri geyago?

—Jauna —erantzun zion baserritarrak—, bete-betia ekarri det; bañan zure seme-alabatxoak jan dituzte geyenak.

—Nere seme-alabak?

—Bai jauna: ta gogoz jan ere! Ni pozez nengoen beren jan-bearra ikusiaz.

—Bañan nik ez badet seme-alaba txikirik!

—Ba... atarian gelditu dira.

—A!... orain gogoratzen naiz: Tximinoak!

XVIII. ARTZAI BATEN BETAURREKOAK

Igandero eleizara joaten zan artzain batek oartu zuen erriko irakas-
lea betaurrekoak iñoiz kendu gabe ibiltzen zalata, benaz oldoztu ondoren,
onela zion:

—Ez det ezbairik: Irakasle ori betaurrekoak dituelako izango da erri
ontako irakurlerik azkarrena.

Ta besterik gabe, erabaki zuen berak ere erostea.

Joan zan bada egun baten Donostira. Bakar-bakarrik kalerik-kale, jo
orrera ta jo onera, luzaro ibilli ondoren, jo zuan noizbaitian betaurrekoak
saltzen ziran denda baten.

Gelditu zan ate ondoan, eta deitu zuen indartsu:

—Eup! Emen saltzen al dira betaurrekoak?

—Bai gizona: atoz aurrera —erantzun zioten—. Ona emen ugari ta
merke.

—Merke nai garesti: bein oneraño ezkeru ez naiz itzuliko erosi gabe.

—Ona emen izparringia, ta ikusi zazu zeñekin irakurtzen dezun
obeto.

Jarri zuan bat, ta izparringiari goitik-bera begiratu ondora, onela
zion:

—Ez det batere irakurtzen.

—Ikuspide laburra al dezu?

—Laburra! Ez jauna, ez. Nik Aitzgorriko muturretik zenbatzen
ditut Ernion arkitzen diran ardiak.

—Tira ba onekin.

Jarri zuan beste bat, onen ondoren beste bat; ta orrela bana-banaka
ikustatu zituen mota guzietako betaurrekoak, leyarrak ondo garbituaz;
bañan alperrik, ezin zuen irakurri.

Gogait egin zuen dendariak, ta galdetu zion artzaiñari:

—Zuk badakizu gero irakurtzen?

—Alajaña! Irakurtzen baneki ez nuke betaurreko bearrik!



XIX. TXAKURRA ALA TXERRIA?

Altzako Kilimon kirten Donostira txerri eder bat eraman bearrian arkitzen zan. Bañan, *3anta Katalina* zubia igarotzeko zerga gogortxua ordaindu bear; ta orrek min aundia ematen zion. Etzuen lorik egin gau artan: Zerga ordaindu gabe Donostira nola sartuko ote zuen oldozketan igaro zuen gau guzia. Asmatu zuen azkenerako, ta ederki asmatu ere.

Lenbizi il zuen txerria. Gero, eldu zion etxeko zakurrari, ta zorro baten sartuaz, badijoa gure Kilimon zakurra bizkarrean duela.

Iritxi zan zergetxe aurrera, ta zergari batek galdetu zion:

—Zer daramazu zorro ortan?

—Etxeko zakurra.

—Zakurra e? ta arategira beraz? Nik emango dizut zuri!

—Zakurra dala, gizona! Jauregi bateko baratza zaintzeko daramat.

—Ez diguzu sartuko ziri ori. Tira, tira, sabaldu zorroa beriala.

Zabaldu zuen Kilimonek, eta zalapartaka atera zan zakurra ta laisterka iges egin zuen bere etxerontz.

Asarre aundia irudikatuaz, onela zion Kilimonek zergariari:

—Zakurra ala txerria izan da? Sinistuko al dezu orain? Zuek bezelako gezurtiak gerala uste dezute? Araie pola!... Zuaz orain zakurra berriz arrapatu ta ekartzera!

Aundiak esan ondoren, joan zan Kilimon bere etxera. Iritxi ta beriala zakurrari ondo esan ta arto zati bat eman ondoren, sartu zuen zorroan txerria ta bizkar gañean arturik abiatu zan donosti alderantz.

Zergetxera iritxi zanian arpegi illun ta begirakun zemaikor bat zuzenduaz, onela dio:

—Nai al dezute berriz zakurra ikusi? Ez litzaizuteke gaizki etorriko bere aginkada bat!

Eta zergariak parrez utzita sartu zan Kilimon Donostira lasai ta pozez txerria bizkarrean zuela, zergariari iruzur-egiñaz.